

# Gurasoen gorputz-morfologia eta konposizioaren eta seme-alaben jaiotza-tamainaren arteko asoziazioa Bilboaldeko familietan

Association of parental body morphology and composition with offspring birth size in families from Greater Bilbao

Beñat Vaquero, Esther Rebato, Aline Jelenkovic\*

Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila.  
Zientzia eta Teknologia Fakultatea (UPV/EHU)

**LABURPENA:** Umeen jaiotza-tamaina bai umezaroan (hazkuntza-aroan) bai helduaroan obesitatea pairatzeko arrisku-faktoreen artean dago. Era berean, umeen jaiotza-tamaina eragina dute gurasoen zenbait ezaugarri antropometrikok. Lan honen helburua da gurasoen morfologiak eta adipositateak seme-alaben jaiotza-pisuarreko eta jaiotza-luzerareko duten erlazioa analizatzea. Bilboaldeko familiez osatutako lagin batean. Aztertutako lagina 391 amei eta 274 aitei dagokien bi datu-basean oinarritzen da, non amen analisisrako 404 seme eta 368 alabaren jaiotza-datuak jaso baitira, eta aiten analisia 280 seme eta 252 alabarenak. Haurren jaiotzaren ezaugarririk loturiko aldagaia dira jaiotza-pisua eta jaiotza-luzera, indize ponderala, haundialdi-adina eta jaiotza-ordena. Gurasoen ezaugarri antropometrikoak, berriz, luzera bertikalak, zabalerak, zirkunferentziak, larruzalpeko tolesturak, pisua, gorputz-masaren indidea, gerri-aldaka indidea, enborreko eta gorputz-adarretako larruzalpeko tolesturen arteko ratioa, larruzalpeko tolesturen batuketa eta antropometria-somatotipoaren osagaiak dira. Asoziazioko azterketa, koaldagai ezberdinetara doituakto erregresio linealaren analisiak erabili dira. Gurasoen zenbait ezaugarri antropometrikok, batez ere amen kasuan, asoziazio positiboa erakusten dute seme-alaben jaiotza-pisuarrekin, eta hezur-substratua oinarritzat duten gurasoen ezaugarri antropometrikoek ere lortu positiboa erakusten dute haurren jaiotza-luzerarekin. Ez dirudi seme-alaben sexua, gurasoen adina, jaiotza-ordena zein haundunaldi-adina asoziazio-kausa nagusia direnrik gurasoen ezaugarri antropometriko eta seme-alaben jaiotza-tamainaren artean, aztertutako laginean. Laburbilduz, ikerketa honetan behatutako asoziazioek gurasoen ezaugarri antropometriko batzuek seme-alaben jaiotza-tamainaren eragina izatearen ideia indartzen dute, eta, beraz, osasun publiko ondorio garrantzitsuak izan ditzakete obesitatearen prebentzioan.

**HITZ GAKOAK:** jaiotza-tamaina, ezaugarri antropometrikoak, gorputz-morfologia, adipositatea, garaiera, guraso-ondorengo asoziazioa.

**ABSTRACT:** Birth size, among other factors, is associated with the risk of obesity during growth and in adulthood. Likewise, some parental anthropometric traits have shown to be associated with the size at birth of their children. The objective of this study was to analyse the relationship of parental morphology and adiposity with offspring birth size in a sample of families from Greater Bilbao. The sample consisted of 391 mothers and 274 fathers and their children; 404 sons and 368 daughters for the analysis including mothers, and 280 sons and 252 daughters for the analysis in fathers. Birth related variables included birth weight, birth length, ponderal index, gestational age and birth order. For the parental generation, there is information on body lengths, widths, circumferences, skinfolds, weight, body mass index, waist-to-hip ratio, trunk-to-extremity skinfold ratio, sum of skinfolds, and the three components of anthropometric somatype. Linear regression analyses adjusted for different covariates were used to analyse the associations. Several parental anthropometric traits showed positive associations with their children's birth weight, particularly in mothers, and bone-related anthropometric traits were also positively associated with birth length in both sexes. The observed associations were not explained by children sex, parental age, birth order, or gestational age. In summary, our results showed that body morphology and adiposity in parents are related to birth size in offspring, and thus can have important public health implications in the prevention of obesity.

**KEYWORDS:** birth size, anthropometric traits, body morphology, adiposity, height, parent-offspring association.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Aline Jelenkovic. Zientzia eta Teknologia Fakultatea, UPV/EHU, Sa-rreria auzoa z.g. 48940 Leioa. – aline.jelenkovic@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-6191-8371>

**Nola aipatu / How to cite:** Vaquero, Beñat; Rebato, Esther; Jelenkovic, Aline (2024). «Gurasoen gorputz-morfologia eta konposizioaren eta seme-alaben jaiotza-tamainaren arteko asoziazioa Bilboaldeko familietan». *Ekaia*, 46, 2024, 255-277. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.25050>).

Jasotze-data: 2023, uztailak 20; Onartze-data: 2024, maiatzak 21.

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © UPV/EHU Press

 Lan hau Creative Commons Aitoru-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoia licentzia baten mende dago

## 1. SARRERA

Giza populazioaren gorputz-tamaina, -forma eta -konposizioaren aldakortasuna aztertzeaz gain, Antropologia Fisikoak faktore genetikoek nahiz ingurumen-faktoreek gorputzaren morfologian eta konposizioan duten eragin erlatiboa aztertzen ditu [1]. Zenbait azterlanen arabera, adipositateak % 40tik % 70era bitarteko heredagarritasuna (faktore genetikoek azalduak ezaugarriaren aldakuntza totalean duen proportzioa) du, eta, horiaz, adipositatearen aldakuntzaren zati esanguratsu bat faktore genetikoei egotz dokieke [2, 3]. Era berean, garaieran ere eragin handia du genetikak, eta orokorrean garaieraren heredagarritasuna % 80 ingurukoa dela kalkulatu da [4]. Hala ere, faktore genetikoak adipositatea eta garaiera zehatzeko garrantzitsuak badira ere, ingurumen-faktoreek ere, hala nola dietak eta bizimoduak, eragina izan dezakete haren garapenean. Gainera, ikerketa batzuek iradokitzen dute ingurumen-faktoreek faktore genetikoekin elkarreragin dezaketela adipositatearekin eta garaierarekin lotutako geneen adierazpenean eragiteko [5].

Azken hamarkadetan, gizartearen batez besteko garaierak goranzko joera sekularra erakutsi du. 2016an argitaratutako mundu mailako ikerketa batek, 200 herrialdetako datuak aztertu zituenak, aurkitu zuen munduko batez besteko garaiera 6,5 cm inguru handitu zela azken 100 urteetan [6]. Horrez gain, Estatistikako Institutu Nazionalaren txostenaren arabera (2021), Espainiako helduen batez besteko garaiera 1,4 cm handitu da azken hamarkadan. Garaieraren igoera hori faktore sozioekonomikoekin eta osasun-faktoreekin lotuta egon daiteke; adibidez, nutrizio eta arreta mediko hobia izatearekin [7].

Nahiz eta ikerketa batzuek batez besteko garaieraren igoera nutrizioaren hobekuntzarekin lotu, beste ikerketa batzuek mundu mailako biztanleriaren obesitatearen prebalentziaren igoera azpimarratu dute. Obesitatea gizarte- nahiz osasun-arazo larrienetako bat denez gaur egun, horren prebalentziaren igoera landu beharreko auzi garrantzitsu bilakatu da [8]. 2016an argitaratutako ikerketa batek, 186 herrialdetako 20 milioi heldu baino gehiagoren datuak aztertuta, aurkitu zuten obesitatearen prebalentzia % 3,2tik (1975ean) % 10,8ra (2014an) igo zela gizonetan, eta % 6,4tik % 14,9ra emakumeetan [9]. Espainian 2014an egindako ikerketa baten arabera, 1987tik 2012ra bitartean nabarmen egin zuen gora gehiegizko pisuaren (% 34,0tik % 35,8ra) eta obesitatearen prebalentziak (% 8,0tik % 16,5era). Ikerketak adierazi zuen sedentarismoaren eta dieta ez-osasuntsuen gorakada funtsezko faktoreak izan zitezkeela prebalentzia handitzeko [10]. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren 2018ko txosten batek berretsi zuen, halaber, gehiegizko pisuaren eta obesitatearen prebalentziak gora egin duela Espanian, batez ere haur eta gazteen artean. Txostenak Espanian gizentasunaren arazoari aurre egiteko

beharra nabarmendu zuen, prebentzio- eta tratamendu-programekin eta politika publikoekin [11].

Obesitatea baldintza heterogeneoa denez, gorputz-gantzaren kantitatearen eta banaketaren adierazle multzoen analisiak balio epidemiologiko garrantzitsua eskuratu dute; izan ere, analisi horietan kontuan hartzen dena da obesitatearekin loturiko fenotipo desberdinek gizabanako eta populazioen osasunean duten eragin bereizgarria [12]. Gurasoen antropometriak umeen jaiotza-tamainarekin duen erlazioa aztertzen duten ikerketa gutxi daude, eta, gainera, ikerlan horietan baliatutako fenotipo-aldagaien kopurua ere nahiko txikia da. Hala ere, ikerketa batzuk diote amaren gorputz-masa indizeak (GMI) eta gurasoen ezaugarri antropometrikoek lotura dutela seme-alaben jaiotza-luzerarekin eta jaiotza-pisuarekin [13, 14]. Ikerketa baten arabera, jaiotza-pisua amaren garaierarekin eta GMiarekin eta aitaren garaierarekin lotuta dago [13]. Beste ikerketa batek frogatu du aitaren garaiera eta pisua jaiobriaren pisuarekin eta jaiotzaren luzerarekin erlazionatuta dagoela [14]. Hori horrela, autore batzuek agerian utzi dute umeen jaiotza-luzerak eta jaiotza-pisuak eragina dutela haien haurtzaroko eta helduaroko garaieran eta GMian [15, 16]. Era berean, haurtzaroan GMI altua izateak, alde batetik, helduarioan obesitatea sufritzeko arriskua areagotzen du, [17] eta, bestetik, obesitateak eragin ditzakeen gaixotasunak pairatzeko arriskua ere bai (adibidez, II motako diabetesa, hipertensioa, gaixotasun kardiobaskularrak edota minbizia [18]); beraz, horregatik da garrantzitsua gurasoen fenotipoen eta seme-alaben jaiotza-tamainaren arteko lotura zehaztea.

Lan honen helburua da gurasoen morfologiak eta adipositateak seme-alaben jaiotza-tamainarekiko (jaiotza-pisuaren, jaiotza-luzeraren eta indize ponderalaren bidez azalduta) duen erlazioa analizatzea, Bilboaldeko familiez osatutako lagin batean.

## 2. MATERIAL ETA METODOAK

### 2.1. Lagina

Lan honetan erabilitako datuak doktoretza-tesi batetik ateratakoak dira [1]. Tesi horretan, Bilboaldeko (Bizkaia) 533 familia nuklearren gorputz-morfologia, obesitatea eta odol-presioari dagozkien determinatzaile genetiko eta ingurumenekoak aztertu ziren. Jatorrizko lagina 2 eta 19 urte bitarteko 445 semez eta 402 alabez, eta 346 aitez eta 509 amez dago osatuta. Haurren datu antropometriko eta soziodemografikoen bilketa 22 ikastetxetan egin zen, 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetan zehar. 2014-2016 urte bitartean, aztertutako familiekin berriz ere harremanetan jarri ziren hasierako proiektuari buruzko galdera berriak egiteko eta aurreko galdera

batzuk osatzeko. Kontaktutako familiek, beste datu batzuen artean, haurren osasun-kartiletan jasotako jaiotza-pisuaren eta jaiotza-luzeraren datuak eman zituzten. Azterlan honen helburua betetzeko, jatorrizko laginetik seme-alaben jaiotza-datuak eta 391 amen eta 274 aiten datu antropometrikoak erabili dira. Datu horietatik abiatuz, bi datu-base prestatu dira: amen datu-basea eta aiten datu-basea. Amen analisian, 404 semeren eta 368 alabaren jaiotza-datuak jaso dira, eta aiten analisian, 280 semerenak eta 252 alabarenak.

Ikerketan ez da sartu adoptatutako haurrik, ez eta Europatik kanpoko familietan jatorria duen haurrik ere. Hasierako azterketa egiteko ikastetxean, Eusko Jaurlaritzaren eta ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza akademikoaren baimena lortu zen. Gainera, gurasoek baimen informatua sinatu zuten, haien eta beren seme-alabek ikerketan parte hartzen. EHAAren I. eranskinaren arabera, 2010eko martxoaren 30eko 060 zk., DSI ARCHIVO INA 0047 erregistroarekin, datu-baseak eraikitze fitxategiak «aitortutako fitxategiak» dira, eta aldeko auditoretza egin zaie (DBLO ikuskapen-txostena, 2014-10-20ko).

## **2.2. Aztertutako aldagaiak**

Bilboaldeko familiei eskatutako seme-alaben jaiotzarekin loturiko aldagaiak dira jaiotza-pisua, jaiotza-luzera, haurdunaldi-adina eta jaiotza-ordena. Gurasoen ezaugarri antropometrikoei dagozkien datuak hauek dira: hiru luzera bertikal (garaiera, garaiera ileoespinala eta eseritako garaiera), lau zabalera (biakromiala, bikrestala, eta humeroko eta femurreko biepi-kondilarra), bost zirkunferentzia (besoa erlaxatua, besoa tolestuta, gerria, aldaka eta berna), sei larruazalpeko tolestura (bizipitala, trizipitala, subeskapularra, suprailiakoa, abdominala eta bernakoa) eta pisua. Neurketa guztiek teknika antropometriko estandarizatuak erabiliaz eta neurri bilaterala gorputzaren ezkerreko aldean neurtuz eskuratu ziren [19]. Zirkunferentziak hurbileneko milimetraino hartu ziren, Harpeden (Holtain Ltd, Hoechst-mass, West Germany) zinta antropometrikoa erabiliaz. Larruazalpeko tolesturak ere hurbileneko milimetraino neurtu ziren, Lange kalibrea erabiliaz (Cambridge Scientific Industries, Cambridge, MD), eta luzerak eta zabalerak 1 mm-eko zehaztasuneko Sibner-Hegner (GMP, Zurich, Switzerland) tresneria bidez jaso ziren. Pisua 0,1 kg zehaztasuneko doitasun-balantza digitala erabiliaz hartu zen.

Zuzeneko neurketa antropometrikoetatik abiatuz, honako aldagai eraitorri hauek kalkulatu ziren: indize ponderala [IP = jaiotza-pisua (kg)/jaiotza-luzera ( $m^3$ )], gorputz-masaren indizea [GMI = pisua (kg)/garaiera ( $m^2$ )], gerri-aldaka indizea (GAI = gerri-zirkunferentzia/aldaka-zirkunferentzia), enborreko eta gorputz-adarretako larruazalpeko tolesturen arteko ratioa [TER = (suprailiakoa + subeskapularra + abdominala)/

(bizipitala + trizipitala + bernakoa)] eta sei larruazalpeko tolesturen batuketa (6TB = bizeps + trizeps + subeskapularra + suprailiakoa + abdominala + bernakoa). Heath-Carter antropometria-somatotipoaren hiru osagaiak (endomorfia, mesomorfia eta ektomorfia) Carter eta Heath artikulan [20] deskribatutako formula bidez kalkulatu ziren.

### **2.3. Analisi estatistikoak**

Estatistiko deskribatzaileak, lehenik, Bilboaldeko seme-alaben jaiotza-ezaugarriei loturiko aldagaien tuztak kalkulatu ziren. Seme-alaben estatistikoak dagokienez, bakoitzak bere aldetik kalkulatu zen, hau da, sexuarekiko independente aitaren datu-basean nahiz amarenean. Ondoren, seme-alaba horien gurasoen fenotipo antropometrikoen estatistiko deskribatzaileak kalkulatu ziren.

Seme-alaben jaiotza-pisuak, jaiotza-luzerak eta indize ponderalek gurasoetan neurtutako ezaugarri antropometrikoekiko duten erlazioa analizatzeko helburuarekin, gurasoetako bakoitzarentzat (aita edo ama) modu independentean, hainbat koaldagairentzat doitutako erregresio lineal bidezko analisiak erabili ziren. Gurasoen neurri antropometrikoak aldagai independente bezala erabili ziren, eta seme-alaben jaiotza-ezaugarriak aldagai dependente jarraitu bezala. Koaldagai desberdinak dituzten 3 eredu aztertu ziren: I eredua (seme-alaben sexua eta gurasoen adina), II eredua (seme-alaben sexua, gurasoen adina eta gizabanakoaren jaiotza-ordena) eta III eredua (seme-alaben sexua, gurasoen adina, gizabanakoaren jaiotza-ordena eta haurdunaldi-adina).

Estatistiko deskribatzaileak IBM SPSS statistics 28.0 (IBM Corp, Armonk, NY, USA) programa bidez gauzatu ziren, eta erregresio linealak Stata/IC 14.0 bidez (StataCorp, College Station, Texas, USA).

## **3. EMAITZAK**

### **3.1. Estatistiko deskribatzaileak**

1. taulan Bilboaldeko seme-alaben jaiotza-ezaugarriekin lotutako aldagaien estatistiko deskribatzaileak aurkezten dira, sexuaren arabera eta analisi bakoitzerako bananduta. Jaiotza-pisua eta jaiotza-luzera zerbait altuagoak dira semeetan (3.331 g eta 50,5 cm aitak barne hartzen dituen analisia, eta 3.324,1 g eta 50,4 cm amenean) alabetan baino (3.263,3 g eta 49,8 cm eta 3.230 g eta 49,7 cm, hurrenez hurren). Haurdunaldi-adinen balioak oso antzekoak dira analisien artean eta sexuen artean. Semeek lehenengo eta laugarren arteko jaiotza-ordena dute, eta alabek lehenengo eta bosgarren artekoa. Indize ponderalaren balioak oso berdintsuak dira analisien artean eta seme-alaben artean.

**1. taula.** Bilboaldeko seme-alaben jaiotza-ezaugarriekin lotutako aldagaien estatistiko deskribatzaireak

Aiten analisia	Semeak					Alabak				
	N	BB	DE	Min	Max	N	BB	DE	Min	Max
Jaiotza-pisua (g)	283	3331	495,3	1200	4650	253	3263,3	531,4	1.600	4.980
Jaiotza-luzera (cm)	276	50,5	2,3	40	59	250	49,8	2,2	40	55
Haurdunaldi-adina (asteak)	279	39,3	1,9	29	42	253	39,5	1,7	30	43
Jaiotza-ordena	283	1,6	0,7	1	4	252	1,6	0,7	1	5
Indize ponderala (IP)	275	26	2,9	14,6	35,1	248	26,3	3,2	12,8	43,5
<hr/>										
Amen analisia										
Jaiotza-pisua (g)	409	3324,1	526,6	1000	5500	369	3230	535,5	1.100	4.980
Jaiotza-luzera (cm)	399	50,4	2,7	32	59	366	49,7	2,5	35	58
Haurdunaldi-adina (asteak)	404	39,3	2	27	44	370	39,4	2	28	43
Jaiotza-ordena	408	1,6	0,7	1	4	369	1,6	0,7	1	5
Indize ponderala (IP)	397	26	3,1	13,8	37,75	363	26,1	3,1	12,8	43,5

N: indibiduo kopurua; BB: balioen batezbestekoa; DE: desbideratze estandarra; Min: balio minimoa; Max: balio maximoa; IP: indize ponderalaren unitateak [IP = jaiotza-pisua (kg)/jaiotza-luzera (m)<sup>3</sup>]. Aiten eta amen analisiak bi azpilaginetan egin dira, bereizita: aiten datu-basea eta amen datu-basea.

2. taulan Bilboaldeko gurasoen fenotipo antropometrikoen estatistiko deskribatzaireak aurkezten dira. Garaiera, pisua, zabalerak eta zirkunferentziak handiagoak dira aiten kasuan amen kasuan baino, eta alde nabarmena ikus daiteke garaiera (14,17 cm-ko aldea), pisua (19,88 kg-koa) eta gerri-zirkunferentzia (16,33 cm-koa) aldagaietan. Mesomorfia, ektomorfia, GMI eta batez ere TER (2,17 aitetan eta 1,06 ametan) balioak ere handiagoak dira aitetan ametan baino. Tolesturekin erlazionatutako balioak aldakorragoak dira. Aiten tolestura subeskapular, suprailiako eta batez ere abdominala (8,27 mm-ko aldearekin) handiagoa da amena baino. Hala ere, tolestura bicipitala eta, batez ere, trizepseko (9,97 mm-ko aldea) eta bernako tolesturak (8,18 mm-ko aldea) handiagoak dira ametan aitetan baino. 6TB eta endomorfia balioak ere altuagoak dira amen kasuan.

**2. taula.** Bilboaldeko gurasoen fenotipo antropometrikoen estatistiko deskribatzaileak

Fenotipoak	Aitak (n = 274)	Amak (n = 391)
Adina (urteak)	44,48 (5,12)	41,07 (4,77)
Garaiera (cm)	175,05 (6,59)	160,88 (5,63)
Pisua (kg)	80,73 (11,48)	60,85 (8,69)
G. ileoespinala.(cm)	97,93 (4,97)	89,74 (4,3)
Eseritako g. (cm)	92,92 (3,47)	85,77 (2,93)
Z. biakromiala. (cm)	40,34 (2,02)	36,19 (1,36)
Z. bikrestala. (cm)	32,07 (1,96)	30 (2,01)
Humeroko z. (cm)	6,84 (0,31)	5,9 (0,29)
Femurreko z. (cm)	9,82 (0,46)	8,83 (0,42)
Erlaxatutako besoko zir. (cm)	31,19 (2,58)	27,8 (2,71)
Gerri-zir. (cm)	91,84 (9,31)	75,51 (7,51)
Aldaka-zir. (cm)	100,12 (6,13)	98,17 (6,62)
Bernako zir. (cm)	38,45 (2,52)	35,89 (2,4)
T. biziitala (mm)	10,39 (4,73)	14,88 (6,2)
T. trizipitala (mm)	13,16 (5,1)	23,13 (7,37)
T. subeskapularra (mm)	24,62 (8,59)	21,05 (8,44)
T. suprailiakoa (mm)	19,79 (8,21)	17,08 (9,24)
T. abdominala (mm)	34,08 (9,53)	25,81 (9,51)
Bernako t. (mm)	14,5 (6,14)	22,68 (7,3)
Endomorfia	5,36 (1,47)	5,99 (1,73)
Mesomorfia	5,26 (0,99)	4,2 (0,97)
Ektomorfia	1,38 (0,94)	1,65 (0,99)
GMI (kg/m <sup>2</sup> )	26,29 (3,07)	23,5 (3,12)
GAI	0,92 (0,06)	0,77 (0,05)
TER	2,17 (0,56)	1,06 (0,3)
6TB (mm)	116,13 (34,7)	124,63 (41,98)

Datuak batezbesteko gisa aurkeztu dira (desbideratzen estandarra). n: indibiduo kopurua; G.: garaiera; Z.: zabalera; Zir.: zirkunferentzia; T.: larruazalpeko tolestura; GMI: gorputz-masa indizea; GAI: gerri-aldaea indizea; TER: enborreko eta gorputz-adarretako larruazalpeko tolesturen arteko ratioa; 6TB: sei larruazalpeko tolesturen batura.

### 3.2. Erregresio-analisiak

3. taulan Bilboaldeko aiten eta amen ezaugarri antropometrikoen eta seme-alaben jaiotza-pisuaren arteko erregresio-analisiak aurkeztu dira. Oro har, amen analitiko erregresio-koefizienteak altuagoak dira. Ereduen dago-kienez, seme-alaben sexurako eta gurasoen adinerako (I eredu) eta, gehigarri gisa, gizabanakoaren jaiotza-ordenarako doitzan direnean (II eredu), oso antzekoak dira erregresio-koefizienteen balioak. II ereduan doitzatukoaz gain, haerdunaldi-adinerako (III eredu) doitzean, balio horiek zer-bait baxuagoak dira. Aiten kasuan, orokorrean, seme-alaben jaiotza-pisua positiboki lotuta dago eseritako garaierarekin (eseritako garaiera cm-ko,

jaiotza-pisua 20,97 g handiagoa da;  $p < 0,05$ ), femurreko zabalera biepi-kondilarrarekin (130,5 g/cm;  $p < 0,05$ ) eta aldakaren zirkunferentziarekin (8,651 g/cm;  $p < 0,05$ ) (I eredu). Aiten beste ezaugarri antropometrikoekiko ez da asoziazio esangarririk ageri. Amen kasuan (I eredu), garaiera ileospinal, mesomorfia eta TER ezaugarri antropometrikoentzat ezik, seme-alaben jaiotza-pisua positiboki asoziaturik dago gainerako amaren ezaugarri antropometrikoekin (hala nola pisuarekin, 13,40 g/kg, edota GMIarekin, 28,77 g handiagoa izanik jaiotza-pisua GMI unitateko;  $p < 0,05$ ) (I eredu).

Aiten eta amen ezaugarri antropometrikoen eta haien seme-alaben jaiotza-luzeraren artean egindako erregresioen analisiak agertzen dira 4. taulan. Erregresio-koefizienteak aldakorrak dira ezaugarri antropometriko bakoitzerako; koefizienteen erdiak altuagoak dira ametan, eta beste erdiak altuagoak aitetan. I eta II eredu erregresio-koefizienteen balioak oso antzekoak dira, baina III eredu zerbait baxuagoak dira balio horiek. Seme-alaben jaiotza-luzera positiboki lotuta dago aitaren hezurrarekin erlazionatutako ezaugarri antropometrikoekin, hau da, garaiera (garaiera cm-ko, jaiotza-luzera 0,069 cm handiagoa da;  $p < 0,05$ ), zabalera eta zirkunferentziekin gehienbat ( $p < 0,05$ ). GMIarekin ere asoziazio positiboa ikus daiteke (0,079 cm handiagoa da jaiotza-luzera aitaren GMI unitateko;  $p < 0,05$ ). Aiten beste ezaugarri antropometrikoekiko ez da asoziazio esangarririk ageri. Amen kasuan ere, seme-alaben jaiotza-luzera positiboki lotuta dago hezurdurarekin erlazionatutako amaren ezaugarri antropometrikoekin; hau da, garaiera (garaiera cm-ko, jaiotza-luzera 0,076 cm handiagoa da;  $p < 0,05$ ), zabalera eta zirkunferentziekin gehienbat ( $p < 0,05$ ). GAIarekin ere asoziazio positiboa ikus daiteke (4,747 cm handiagoa da jaiotza-luzera GAI unitateko;  $p < 0,05$ ). Amen beste ezaugarri antropometrikoekiko ez da asoziazio esangarririk ageri.

5. taulan, gurasoen ezaugarri antropometrikoek seme-alaben indize ponderalarekiko duten lotura azaltzeko erregresio-analisiak aurkezten dira. Oro har, amen analisiko erregresio-koefizienteak altuagoak dira, eta eredu guztietan oso antzekoak dira ezaugarri antropometriko bakoitzerako erregresio-koefizienteen balioak. Aiten kasuan, indize ponderala ez dago aitaren inolako ezaugarri antropometrikorekin lotuta. Amen kasuan, garaiera, garaiera ileospinal, eseritako garaiera, zabalera biakromial, humero-roko zabalera biepikondilar eta TER aldagaietik ezik, indize ponderala positiboki asoziatuta dago gainerako amaren ezaugarri antropometrikoekin ( $p < 0,05$ ).

**3. taula.** Bilbaoaldeko aitien (goian) eta amen (behean) ezaugari antropometrikoen eta seme-alaben jaiotza-pisuaren arteko erre-gresio-koeffizienteak (jaiotza-pisua (g), gurasoen ezaugari antropometriko bakoitzaren unitateko)

Aitak	I eredu			II eredu			III eredu		
	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)
Garaiera (g/cm)	7,906 (0,018; 15,79)	0,049	7,699 (-0,222; 15,62)	0,057	5,353 (-1,141; 11,85)	0,106			
Pisua (g/kg)	4,317 (-0,123; 8,756)	0,057	4,187 (-0,276; 8,65)	0,066	3,288 (-0,590; 7,165)	0,096			
G. ileosp. (g/cm)	4,739 (-6,575; 16,05)	0,410	4,443 (-6,902; 15,79)	0,441	4,443 (-6,902; 15,79)	0,441			
Esentikako g. (g/cm)	20,97 (6,68; 35,25)	0,004	20,40 (6,012; 34,78)	0,006	13,95 (1,617; 26,29)	0,027			
Z. biaktro. (g/cm)	22,53 (-2,68; 47,74)	0,080	22,94 (-2,222; 48,1)	0,074	10,63 (-10,12; 31,39)	0,314			
Z. bikires. (g/cm)	24,19 (-1,80; 50,17)	0,068	23,72 (-2,43; 49,86)	0,075	20,18 (-2,207; 42,56)	0,077			
Humeroko z. (g/cm)	11,21 (-166,6; 188,9)	0,901	8,81 (-168,7; 186,3)	0,922	41,45 (-103,9; 186,8)	0,575			
Femurreko z. (g/cm)	130,5 (13,26; 247,7)	0,029	129,5 (12,32; 246,7)	0,030	72,70 (-29,86; 175,3)	0,164			
Besoko zir. (g/cm)	6,614 (-13,01; 26,24)	0,508	6,527 (-13,18; 26,23)	0,515	3,805 (-12,36; 19,97)	0,643			
Gerriz-zir. (g/cm)	1,520 (-4,174; 7,214)	0,600	1,443 (-4,260; 7,146)	0,619	1,352 (-3,420; 6,124)	0,577			
Aldaka-zir. (g/cm)	8,651 (0,310; 16,99)	0,042	8,382 (0,03; 16,73)	0,049	6,332 (-0,888; 13,53)	0,085			
Bernako zir. (g/cm)	18,96 (-0,03; 38,17)	0,053	18,19 (-1,122; 37,60)	0,066	20,97 (3,496; 38,44)	0,019			
T. bizipitala (g/mm)	-0,424 (-10,07; 9,22)	0,931	-0,373 (-10,03; 9,281)	0,939	-2,703 (-11,27; 5,859)	0,535			
T. trizipitala (g/mm)	0,209 (-9,165; 9,583)	0,965	0,242 (-9,138; 9,623)	0,959	-0,424 (-8,856; 8,009)	0,921			
T. subesk. (g/mm)	0,416 (-5,588; 6,420)	0,892	0,370 (-5,664; 6,404)	0,904	0,125 (-5,010; 5,260)	0,962			
T. supraili. (g/mm)	-0,170 (-6,581; 6,241)	0,958	-0,310 (-6,752; 6,133)	0,925	1,557 (-3,748; 6,863)	0,564			
T. abdominala (g/mm)	2,723 (-2,678; 8,124)	0,322	2,640 (-2,779; 8,059)	0,338	2,622 (-1,794; 7,037)	0,243			
Bernako t. (g/mm)	3,151 (-4,656; 10,96)	0,428	3,072 (-4,817; 10,96)	0,444	3,070 (-4,429; 10,57)	0,421			
Endomorfia	3,608 (-30,61; 37,83)	0,836	2,992 (-31,26; 37,24)	0,864	5,308 (-24,06; 34,67)	0,722			
Mesomorfia	3,762 (-50,91; 58,43)	0,892	4,104 (-51,27; 59,47)	0,884	13,36 (-28,64; 55,36)	0,532			
Ektomorfia	-26,64 (-83,84; 30,57)	0,360	-25,94 (-83,60; 31,72)	0,377	-31,83 (-76,39; 12,73)	0,161			
GMI	10,23 (-6,243; 26,71)	0,223	9,875 (-6,808; 26,56)	0,245	8,539 (-5,679; 22,76)	0,238			
GAI	-225,3 (-1153,4; 702,8)	0,633	-223,5 (-1149,9; 702,9)	0,635	-67,57 (-835,5; 700,4)	0,863			
TER	-2,45 (-96,4; 9,51)	0,959	-4,44 (-99,74; 90,86)	0,927	21,46 (-62,31; 105,3)	0,614			
6TB (g/mm)	0,496 (-0,91; 1,90)	0,488	0,476 (-0,932; 1,883)	0,506	0,380 (-0,885; 1,645)	0,554			

Amak	I eredu			II eredu			III eredu		
	B (KT)	B (KT)	p	B (KT)	B (KT)	p	B (KT)	B (KT)	p
Garaiera (g/cm)	12,90 (4,801; 20,99)	0,002		12,57 (4,430; 20,71)	0,003		9,621 (31,137; 16,11)	0,004	
Pisua (g/kg)	13,40 (8,620; 18,19)	0,000		13,34 (8,539; 18,14)	0,000		11,37 (7,387; 15,36)	0,000	
G. ileoesp. (g/cm)	10,21 (-1,120; 21,54)	0,077		9,650 (-1,829; 21,13)	0,099		9,650 (-1,829; 21,13)	0,099	
Eseritako g. (g/cm)	25,44 (10,06; 40,82)	0,001		25,05 (9,700; 40,39)	0,001		23,64 (11,71; 35,58)	0,000	
Z. bialtro. (g/cm)	45,14 (12,43; 77,85)	0,007		45,25 (12,45; 78,05)	0,007		50,43 (22,87; 77,99)	0,000	
Z. bikres. (g/cm)	58,51 (36,13; 80,89)	0,000		58,45 (35,99; 80,90)	0,000		43,04 (26,34; 59,74)	0,000	
Humeroko z. (g/cm)	218,9 (80,49; 357,4)	0,002		217,1 (78,17; 356,1)	0,002		204,6 (87,88; 321,3)	0,001	
Femurreko z. (g/cm)	197,9 (93,69; 302,1)	0,000		194,8 (90,01; 299,5)	0,000		180,5 (99,92; 261,2)	0,000	
Besoko zir. (g/cm)	20,35 (4,535; 36,16)	0,012		20,32 (4,449; 36,20)	0,012		19,68 (5,721; 33,63)	0,006	
Gerti-zir. /g/cm)	15,49 (10,07; 20,92)	0,000		15,57 (10,14; 21,01)	0,000		11,55 (7,106; 15,99)	0,000	
Aldaka-zir. (g/cm)	14,42 (8,066; 20,77)	0,000		14,37 (8,001; 20,73)	0,000		11,69 (6,345; 17,03)	0,000	
Bernako zir. (g/cm)	41,94 (23,95; 59,94)	0,000		41,70 (23,65; 59,75)	0,000		33,16 (18,30; 48,01)	0,000	
T. bizipititala (g/mm)	9,756 (2,341; 17,17)	0,010		9,65 (2,190; 17,11)	0,011		8,913 (2,890; 14,94)	0,004	
T. trizipitala (g/mm)	7,150 (0,926; 13,37)	0,024		7,06 (0,808; 13,31)	0,027		6,503 (1,500; 11,51)	0,011	
T. subesk. (g/mm)	9,053 (4,353; 13,75)	0,000		9,14 (4,431; 13,85)	0,000		6,617 (2,385; 10,85)	0,002	
T. supraili. (g/mm)	6,324 (1,876; 10,77)	0,005		6,397 (1,915; 10,88)	0,005		5,572 (1,658; 9,487)	0,005	
T. abdominala (g/mm)	6,313 (1,668; 10,96)	0,008		6,281 (1,605; 10,96)	0,009		5,378 (1,701; 9,053)	0,004	
Bernako t. (g/mm)	12,09 (6,072; 18,11)	0,000		12,03 (5,955; 18,05)	0,000		10,73 (5,768; 15,70)	0,000	
Endomorfia	36,50 (12,46; 60,54)	0,003		36,68 (12,52; 60,83)	0,003		30,18 (8,916; 51,44)	0,006	
Mesomorfia	37,27 (-9,89; 84,44)	0,121		38,51 (-8,703; 85,73)	0,110		42,07 (4,181; 79,97)	0,030	
Ektomorfia	-57,73 (-101,7; -13,74)	0,010		-58,15 (-102,5; -13,83)	0,010		-55,42 (-93,99; -16,85)	0,005	
GMI	28,77 (15,68; 41,86)	0,000		28,85 (15,70; 42,01)	0,000		25,74 (14,90; 36,58)	0,000	
GAI	1330,2 (507,6; 2152,7)	0,002		1352,1 (531,2; 2172,9)	0,001		830,6 (143,5; 1517,6)	0,018	
TER	67,50 (-73,27; 208,3)	0,346		73,05 (-67,88; 213,9)	0,309		44,68 (-64,76; 154,1)	0,423	
6TB (g/mm)	1,798 (0,787; 2,809)	0,001		1,795 (0,779; 2,812)	0,001		1,536 (0,682; 2,390)	0,000	

*Oharria:* B: erregresio-koefizientea; KT: konfianza-tartea; Ileosp.: ileospinala; Biakro.: biakromiala; Bikres.: bikrestala; Erl.: erlatuakoa; Zir.: zirkunferentzia; T.: larruzalpeko tolestura; Subesk.: subeskularra; Supralui.: supraluiakoa; GMI: gorputz-masa indizea; GAI: gerri-aldeko indizea; TER: emborreko eta gorputz-adarretako larruzalpeko tolesturen arteko ratioa; 6TB: sei larruzalpeko tolesturen batura; g: sema-alaben jaiotza-pisua; kg: gurasoen pisua; cm eta mm: ezagunen antropometriko bakoitzeraiko gurasoaren gorputz zatiaren luzera.

I eredu: sema-alaben sexurako eta gurasoaren adinerako doitua.

II eredu: sema-alaben sexurako eta gurasoaren adinerako + gizabanakoaren jaiotza-ordenarako doitua.

III eredu: sema-alaben sexurako eta gurasoaren adinerako + gizabanakoaren jaiotza-ordenarako doitua.  
II eredu: sema-alaben sexurako eta gurasoaren adinerako + gizabanakoaren jaiotza-ordenarako doitua.

**4. taula.** Bilbaoaldeko aitien (goian) eta amen (behean) ezaugarri antropometrikoen eta seme-alaben jaiotza-luzeren arteko erregresio-koeffizienteak (jaiotza-luzera (cm), gurasoen ezaugarri antropometriko bakoitzaren unitateko)

Aitak	I eredu			II eredu			III eredu			
	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)	p
Garaiera (cm/cm*)	0,069 (0,034; 0,103)	0,000	0,068 (0,034; 0,103)	0,000	0,058 (0,029; 0,087)	0,000	0,058 (0,029; 0,087)	0,000	0,058 (0,029; 0,087)	0,000
Pisua (cm/kg)	0,036 (0,017; 0,054)	0,000	0,036 (0,017; 0,054)	0,000	0,031 (0,013; 0,049)	0,001	0,031 (0,013; 0,049)	0,001	0,031 (0,013; 0,049)	0,001
G. ileoesp. (cm/cm*)	0,072 (0,028; 0,117)	0,002	0,072 (0,027; 0,117)	0,002	0,061 (0,022; 0,099)	0,002	0,061 (0,022; 0,099)	0,002	0,061 (0,022; 0,099)	0,002
Eseritako g. (cm/cm*)	0,144 (0,081; 0,207)	0,000	0,143 (0,080; 0,206)	0,000	0,117 (0,067; 0,166)	0,000	0,117 (0,067; 0,166)	0,000	0,117 (0,067; 0,166)	0,000
Z. biaktro. (cm/cm*)	0,215 (0,106; 0,324)	0,000	0,216 (0,106; 0,326)	0,000	0,166 (0,075; 0,257)	0,000	0,166 (0,075; 0,257)	0,000	0,166 (0,075; 0,257)	0,000
Z. bikres. (cm/cm*)	0,176 (0,073; 0,279)	0,001	0,176 (0,072; 0,279)	0,001	0,155 (0,058; 0,252)	0,002	0,155 (0,058; 0,252)	0,002	0,155 (0,058; 0,252)	0,002
Humeroeko z. (cm/cm*)	0,803 (0,102; 1,504)	0,025	0,802 (0,096; 1,505)	0,025	0,883 (0,306; 1,460)	0,003	0,883 (0,306; 1,460)	0,003	0,883 (0,306; 1,460)	0,003
Femurreko z. (cm/cm*)	0,749 (0,277; 1,221)	0,002	0,748 (0,276; 1,221)	0,002	0,533 (0,099; 0,967)	0,016	0,533 (0,099; 0,967)	0,016	0,533 (0,099; 0,967)	0,016
Besoko zir. (cm/cm*)	0,099 (0,015; 0,184)	0,021	0,099 (0,015; 0,184)	0,021	0,086 (0,008; 0,164)	0,030	0,086 (0,008; 0,164)	0,030	0,086 (0,008; 0,164)	0,030
Gerri-zir. (cm/cm*)	0,021 (-0,003; 0,045)	0,091	0,021 (-0,003; 0,045)	0,093	0,020 (-0,004; 0,043)	0,101	0,020 (-0,004; 0,043)	0,101	0,020 (-0,004; 0,043)	0,101
Aldaka-zir. (cm/cm*)	0,065 (0,031; 0,098)	0,000	0,064 (0,031; 0,098)	0,000	0,055 (0,024; 0,086)	0,001	0,055 (0,024; 0,086)	0,001	0,055 (0,024; 0,086)	0,001
Bernako zir. (cm/cm*)	0,130 (0,046; 0,214)	0,002	0,129 (0,045; 0,214)	0,003	0,139 (0,056; 0,221)	0,001	0,139 (0,056; 0,221)	0,001	0,139 (0,056; 0,221)	0,001
T. bizipitala (cm/mm)	0,026 (-0,019; 0,071)	0,249	0,026 (-0,019; 0,072)	0,249	0,017 (-0,024; 0,058)	0,411	0,017 (-0,024; 0,058)	0,411	0,017 (-0,024; 0,058)	0,411
T. trizipitala (cm/mm)	0,028 (-0,016; 0,071)	0,212	0,028 (-0,016; 0,072)	0,211	0,025 (-0,014; 0,065)	0,204	0,025 (-0,014; 0,065)	0,204	0,025 (-0,014; 0,065)	0,204
T. subesk. (cm/mm)	0,018 (-0,007; 0,043)	0,154	0,018 (-0,007; 0,043)	0,156	0,017 (-0,007; 0,040)	0,167	0,017 (-0,007; 0,040)	0,167	0,017 (-0,007; 0,040)	0,167
T. supraili. (cm/mm)	0,022 (-0,008; 0,052)	0,147	0,022 (-0,008; 0,052)	0,153	0,028 (-0,001; 0,056)	0,054	0,028 (-0,001; 0,056)	0,054	0,028 (-0,001; 0,056)	0,054
T. abdominala (cm/mm)	0,021 (-0,002; 0,044)	0,076	0,021 (-0,002; 0,044)	0,079	0,021 (0,000; 0,041)	0,047	0,021 (0,000; 0,041)	0,047	0,021 (0,000; 0,041)	0,047
Bernako t. (cm/mm)	0,006 (-0,027; 0,040)	0,718	0,006 (-0,028; 0,040)	0,724	0,003 (-0,027; 0,033)	0,839	0,003 (-0,027; 0,033)	0,839	0,003 (-0,027; 0,033)	0,839
Endomorfia	0,114 (-0,045; 0,274)	0,158	0,113 (-0,046; 0,273)	0,162	0,118 (-0,031; 0,267)	0,121	0,118 (-0,031; 0,267)	0,121	0,118 (-0,031; 0,267)	0,121
Mesomorfia	0,038 (-0,209; 0,285)	0,763	0,038 (-0,210; 0,286)	0,762	0,073 (-0,127; 0,272)	0,473	0,073 (-0,127; 0,272)	0,473	0,073 (-0,127; 0,272)	0,473
Ektomorfia	-0,153 (-0,408; 0,102)	0,239	-0,152 (-0,408; 0,104)	0,244	-0,165 (-0,387; 0,057)	0,145	-0,165 (-0,387; 0,057)	0,145	-0,165 (-0,387; 0,057)	0,145
GMI	0,079 (0,007; 0,151)	0,033	0,078 (0,006; 0,151)	0,035	0,071 (0,000; 0,142)	0,051	0,071 (0,000; 0,142)	0,051	0,071 (0,000; 0,142)	0,051
GAI	-0,610 (-4,788; 3,568)	0,774	-0,611 (-4,789; 3,566)	0,774	0,040 (-3,631; 3,711)	0,983	0,040 (-3,631; 3,711)	0,983	0,040 (-3,631; 3,711)	0,983
TER	0,145 (-0,229; 0,518)	0,447	0,142 (-0,233; 0,517)	0,457	0,255 (-0,116; 0,627)	0,177	0,255 (-0,116; 0,627)	0,177	0,255 (-0,116; 0,627)	0,177
6TB (cm/mm)	0,006 (-0,001; 0,012)	0,082	0,006 (-0,001; 0,012)	0,085	0,005 (-0,001; 0,012)	0,110	0,005 (-0,001; 0,012)	0,110	0,005 (-0,001; 0,012)	0,110

Amak	I eredu			II eredu			III eredu		
	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)	p	B (KT)
Garaiera (cm/cm*)	0,076 (0,037; 0,114)	0,000	0,077 (0,038; 0,115)	0,000	0,061 (0,028; 0,094)	0,000	0,061 (0,028; 0,094)	0,000	0,061 (0,028; 0,094)
Pisua (cm/kg)	0,041 (0,013; 0,070)	0,004	0,042 (0,013; 0,070)	0,004	0,036 (0,012; 0,059)	0,003	0,036 (0,012; 0,059)	0,003	0,036 (0,012; 0,059)
G. ileosp. (cm/cm*)	0,089 (0,031; 0,146)	0,003	0,090 (0,031; 0,148)	0,003	0,077 (0,031; 0,122)	0,001	0,077 (0,031; 0,122)	0,001	0,077 (0,031; 0,122)
Eseritako g. (cm/cm*)	0,103 (0,032; 0,173)	0,005	0,103 (0,032; 0,174)	0,005	0,098 (0,041; 0,155)	0,001	0,098 (0,041; 0,155)	0,001	0,098 (0,041; 0,155)
Z. biakro. (cm/cm*)	0,231 (0,078; 0,383)	0,003	0,231 (0,078; 0,385)	0,003	0,234 (0,097; 0,372)	0,001	0,234 (0,097; 0,372)	0,001	0,234 (0,097; 0,372)
Z. bikres. (cm/cm*)	0,198 (0,092; 0,303)	0,000	0,199 (0,093; 0,305)	0,000	0,133 (0,051; 0,215)	0,002	0,133 (0,051; 0,215)	0,002	0,133 (0,051; 0,215)
Huneroko z. (cm/cm*)	1,032 (0,400; 1,662)	0,001	1,038 (0,402; 1,674)	0,001	0,944 (0,382; 1,505)	0,001	0,944 (0,382; 1,505)	0,001	0,944 (0,382; 1,505)
Femurreko z. (cm/cm*)	0,575 (0,057; 1,093)	0,030	0,584 (0,061; 1,107)	0,030	0,549 (0,154; 0,943)	0,007	0,549 (0,154; 0,943)	0,007	0,549 (0,154; 0,943)
Besoko zir. (cm/cm*)	0,066 (-0,036; 0,167)	0,204	0,066 (-0,036; 0,168)	0,204	0,205 (-0,011; 0,158)	0,091	0,205 (-0,011; 0,158)	0,091	0,205 (-0,011; 0,158)
Gerrizir. (cm/cm*)	0,052 (0,019; 0,084)	0,002	0,052 (0,020; 0,085)	0,002	0,036 (0,008; 0,064)	0,011	0,036 (0,008; 0,064)	0,011	0,036 (0,008; 0,064)
Aldaka-zir. (cm/cm*)	0,047 (0,011; 0,083)	0,011	0,047 (0,011; 0,084)	0,011	0,040 (0,008; 0,071)	0,014	0,040 (0,008; 0,071)	0,014	0,040 (0,008; 0,071)
Bernako zir. (cm/cm*)	0,126 (0,022; 0,230)	0,017	0,127 (0,023; 0,230)	0,017	0,017 (0,004; 0,187)	0,040	0,017 (0,004; 0,187)	0,040	0,017 (0,004; 0,187)
T. bizipitala (cm/mm)	0,018 (-0,025; 0,061)	0,411	0,018 (-0,025; 0,062)	0,411	0,405 (-0,015; 0,054)	0,270	0,405 (-0,015; 0,054)	0,270	0,405 (-0,015; 0,054)
T. trizipitala (cm/mm)	0,012 (-0,029; 0,053)	0,557	0,012 (-0,029; 0,054)	0,557	0,555 (-0,015; 0,047)	0,306	0,555 (-0,015; 0,047)	0,306	0,555 (-0,015; 0,047)
T. subesk. (cm/mm)	0,026 (0,000; 0,053)	0,050	0,026 (0,000; 0,053)	0,050	0,050 (0,017; -0,008; 0,042)	0,173	0,050 (0,017; -0,008; 0,042)	0,173	0,050 (0,017; -0,008; 0,042)
T. supralii. (cm/mm)	0,017 (-0,009; 0,042)	0,196	0,017 (-0,009; 0,042)	0,196	0,195 (0,015; -0,006; 0,037)	0,165	0,195 (0,015; -0,006; 0,037)	0,165	0,195 (0,015; -0,006; 0,037)
T. abdominala (cm/mm)	0,014 (-0,014; 0,042)	0,339	0,014 (-0,014; 0,042)	0,339	0,334 (0,013; -0,008; 0,035)	0,231	0,334 (0,013; -0,008; 0,035)	0,231	0,334 (0,013; -0,008; 0,035)
Bernako t. (cm/mm)	0,019 (-0,012; 0,050)	0,218	0,020 (-0,011; 0,051)	0,218	0,214 (0,020; -0,005; 0,045)	0,123	0,214 (0,020; -0,005; 0,045)	0,123	0,214 (0,020; -0,005; 0,045)
Endomorfia	0,094 (-0,058; 0,246)	0,224	0,094 (-0,058; 0,247)	0,224	0,224 (0,082; -0,053; 0,218)	0,232	0,224 (0,082; -0,053; 0,218)	0,232	0,224 (0,082; -0,053; 0,218)
Mesomorfia	0,017 (-0,263; 0,297)	0,904	0,016 (-0,266; 0,298)	0,904	0,910 (0,044; -0,192; 0,280)	0,716	0,910 (0,044; -0,192; 0,280)	0,716	0,910 (0,044; -0,192; 0,280)
Ektomorfia	-0,002 (-0,234; 0,233)	0,988	-0,002 (-0,238; 0,233)	0,988	-0,016 (-0,207; 0,174)	0,865	-0,016 (-0,207; 0,174)	0,865	-0,016 (-0,207; 0,174)
GMI	0,055 (-0,034; 0,144)	0,224	0,055 (-0,034; 0,144)	0,224	0,223 (0,051; -0,020; 0,123)	0,157	0,223 (0,051; -0,020; 0,123)	0,157	0,223 (0,051; -0,020; 0,123)
GAI	4,747 (0,925; 8,570)	0,015	4,741 (0,926; 8,557)	0,015	2,199 (-1,145; 5,543)	0,197	2,199 (-1,145; 5,543)	0,197	2,199 (-1,145; 5,543)
TER	0,460 (-0,186; 1,106)	0,163	0,458 (-0,189; 1,105)	0,163	0,264 (-0,307; 0,836)	0,364	0,264 (-0,307; 0,836)	0,364	0,264 (-0,307; 0,836)
6TB (cm/mm)	0,004 (-0,002; 0,010)	0,218	0,004 (-0,002; 0,010)	0,218	0,004 (-0,002; 0,009)	0,167	0,004 (-0,002; 0,009)	0,167	0,004 (-0,002; 0,009)

